

KOSTUEN EGITURA

Enpresa honen kosturik garrantzitsuenak aterkinen ekoizpenean eta bezeroei ekoiztutakoa heltzeko moduan oinarrituta daude. Hau horrela da Decathlon-i ordaindu behar diogulako guri euritakoak egingo digutelako eta Correos-i ordainduko diogulako aterkiak bezeroei eramateagatik.

Gure kostuak sailkatuak horrela geratuko dira. Alde batetik, gure web-guneari erreparatuz, gure portatilak erabiliko ditugu webgunea sortzeko eta eguneratzeko eta liburutegian lan egingo dugunez ez dugu dirua gastatu beharko. Hau da, hango wifi-a erabiliko dugu. Beste aldetik, kostu aldakorretan oinarrituz, Decathlon eta Correos-ekin hitz egin dugu adosteko zenbat ordainduko diegun euritako bakoitzagatik. Informazio hau diru-iturrietan aurkitu ahalko duzue.

